

## 2003-2004 IKASTURTEA HAINBAT HAUSNARKETA ETA LAN ILDOAK

Ziklo bakoitzeko aho hizkuntzari dagokionez helburuak, prozedurak eta ebaluazio irizpideak zehaztea. Horretarako, Rosa Maria Aranoren proposamena daukagu, alde batetik, eta, bertze aldetik, guk eskolan urtero egiten ditugun aktibitateak ongi egituratzea. Adibidez, urtero Xorroxin irratia lantzen dugu baina..

Unitate didaktiko gisa lantzen dugu?

Helburuak ezartzen ditugu? Eta edukiak?

Ebaluazio irizpideak zehazten ditugu?

Aho hizkuntzari dagokionez, landutakoa ebaluatzen dugu?

Xorroxinekin bezala, bertze hainbertze aktibitatearekin gertatzen da: antzerkigintza, bertsogintza... edo sinpleagoak diren bertze batzuekin; haur hezkuntzan borobilean eserita egotean helburuak zehaztuta daude? Ebaluatzen dira? Nola?

Aho hizkuntzan, urte osoko programazioa egin beharko genuke, beraz. Zenbait unitate didaktiko sortu gaur egun egiten ditugun aktibitateak ongi aztertu eta programatuz eta, bertze aldetik, bertze unitate didaktiko berri batzuk sortuz.

Lan hau, hala ere, hizkuntza irakasleek egin beharreko lana da. Zer gertatzen da gainontzeko irakasgaietan?

Hor ere hausnarketa egin beharra daukagu, aho hizkuntza nola bultzatzen ahal dugun erabakitzeko. Hizkuntza irakaslearekin koordinazioa ezinbestekoa da, batek lantzen duena bertzeak praktikan jartzeko.